

EUSKARA U.P.V./EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN: ERABILERA, ZUZENTASUNA ETA KONTROLA

Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26

Xabier Kintana Urtiaga

Lehenagoko azken urteetan, frankismoz gero batik bat, tolerantzi giro bat izan bazuen ere, euskarak EPV/EHUan sarrera ofiziala 1981. urtetik aurrera izan zuela esan dezakegu, gure Autonomi Elkarteko Estatutua onartu eta gero, hots, *Universidad de Bilbao* hura izatetik oraingo *Euskal Herriko Unibertsitatea* hau izatera iragan zen unean hasita. Egiari zor zaion errespetuagatik, ordea, gogoratu beharra dago Martin Mateo errektorearen garaian, *Universidad de Bilbao*-ren azken urteetan alegia, euskara, borondatezko asignatura gisa, eta O.H.O.ko Irakaslego-Eskoletan eta Zientzi fakultateko asignatura batzuk —honetan Jose Ramon Etxebarria irakaslearen eraginez batik bat— euskaraz ematen hasi zirela.

Garai berriko errektoreak, Gregorio Monrealek, lehenbiziko unetik euskara unibertsitate-bizitzan sartu eta txertatzeko interesa agertu zuen eta bere erabaki pertsonalaz Euskararako Kabinete Teknikoa sortu zuen, horren bitartez UPV/EHUan hizkuntz politika berria bideratzeko asmoz.

Hau dela eta, eta aurrera segitu baino lehen, ez nuke ixildu nahi, maiz ahanzten zaigun gauza bat. Legeak —edozein lege— betetzeko agintzen duenaren eta lege berberorrek egiten uzten duenaren artean beti egoten da tarte bat, agintzaritza darabiltenen borondate onaren edo ez hain onaren esku egoten dena. Eta kasu honetan bederen, Euskal Parlamentuak euskararen erabilera arautzeko legea eta Unibertsitatearen Estatutuak oraindik plazaraturik egon ez arren, orduko Errektoregoa euskararen aldeko pausoak egiten hasi zen. Eta hau, nik uste, bai hemen eta bai beste leku batzuetan ere, gogoratu beharra dago, guztiok Konsitutuzio-lege berberaren pean gaudelarik, hizkuntz arazoak Katalunian ongi xamar doazen bitartean, hemen maiz hain gaizki zergatik ari diren hobeki uler dezagun.

Euskararako Kabinetearen lana

Lehengo hariari narraiolarik, Euskal Herriko Unibertsitatearen administrazioko hizkuntzaren ardura, neurri batez, UPV/EHUak Euskararako Kabinete Teknikoaren karguan jarri zen, erakundearen erabili beharreko hizkuntzak behar bezalako normalkuntza eta kalitatearen bermegisa. Kabinete horren sorreratik hor zuzendari eta langile gisa aritu naitenez gero, horko esperientzia azaltzen saiatuko natzaizue. Denborak hala agidurik, txosten honetatik landa utzi beharko dut, ezinbestean, irakaskuntzak bere aldetik plangintza elebidunekin egindako bidea, puntu honetaz, iragaitzaz bederen, aipamenean bat egingo dudan arren. Egintza garrantzitsu hau, gainera, 1986z gero Unibertsitateak, bere Estatutuekin bat, sortarazi zuen Euskararako Errektorordetzaren ardura berezia izanda.

Kabinetearen lana, neurri handiz, itzulpen-zerbitzua zen aldetik, lehenbiziko pausoa itzultzaile trebatu eta egokiak kontratatzea izan zen. Horretarako, deialde publikoa egin eta gure hizkuntzaz, ahoz eta idatziz, ongi jantzirik pertsonak hautatu zituen. Hurrengo pausoa, behin kontratatu eta gero, lan-talde homogeneoa lortzen ahalegindu ginen, eguneroko lan praktikoan sortzen ziren problemei erantzun koherente eta bateratua eskaintzeko.

Hasteko, Kabineteak Unibertsitatearen kanpo-itxura elebiduntzen ihardun zuen, ordurarte erdara hutsez funtzionatzen ziharduen erakundearen hizkuntz paisaia aldatzeko. Horrela, unibertsitate barruko hizkuntz normaltasunerako bidean, fakultate-eskolenen izenak, inprimakiak, jendaurreko abisuak, testu-liburuak, kartelak, bide-seinaleak, kargu, sailen eta asignaturen izenak eta gainerako adierazpenak euskarara itzultzen eta moldatzen aritu ginen, oraintsu arte administrazio-erabilera normaldua izan ez duen mintzaira honen mila arazo praktikoak gainditzen saiatuz.

Hizkuntz irizpide orokorrak eta bereziak

Morfologi, sintaxi eta ortografi arloan Euskaltzaindiaren arauak betetzen eta beterezten saiatu izan gara. Lexikoari dagokionez, hitz arruntan kasuan ez da problemarik izaten, eta berba gehienak Euskaltzaindiak onartuak edo gaitzetsiak ez diren arren, ohizko literatur erabileraren bidetik abiatu gara, aparteko problemarik gabe. Maiztasun handiko hitzetan sinonimia zegoenean, (*abizen/deitura* moduko bikoteetan) geure us-tez era jatorragoa zena hautatu izan dugu, inprimaketan beti forma bakarra bultzatuz.

Goraro esan den bezala, oraintsu arte administrazioan erabili gabe-ko hizkuntza hau ofizialtasun-arlo berezi honetan sartu eta hedatzea ez da zeregin erraza izan. Eta honi erantsi behar zaio, noski, euskarak, hizkuntza erromanikoa ez delako, dituen zailtasun gaineratuak, hortik terminologi arloan sortzen diren zailtasun eta erizpide ezberdin guztiekin.

Hori gainditzeko, Kabineteko itzultzaileen artean problemak aztertu, eztabaidatu eta kontsentsu gisako akordioak hartu dira, bi erizpide nagusi hauek kontutan harturik, gure ustez, behar-beharrezkoak, inoiz bateraezin xamar diruditen arren:

a) Unibertsitatea goren mailako kulturgunea da eta, beraz, goi mailako hizkuntz eredia eskaini behar du, mintzaira zuzen, zehatz eta jasoa, alegia; eta

b) Hizkuntza, beti ere, pertsonen artean komunikatzeko tresna bat da, eta gaurko euskaldunen maila nolakoa den jakinda, garbizalekeria antzuak alde batera utzi eta argi ulertzeko mezuak adierazten saiatu beharra dago. Hitz gutxitan, Unibertsitate mailako hizkuntzaren duintasuna, eta ohizko euskaldunen zerbitzutan egotea elkarren artean ezkon-tzea.

Zaila da, dena den, beti ongi asmatzea, helburu bion arteko mugak sarritan oso garbi ez daudelako. Bestalde, administrazio arloa ez da unibertsitatearen esparru itxian mugatzen. Guk egunero erabili beharreko hitz, esaldi eta formula asko, halaber, beste erakundeen administrazioan azaltzen dira, eta horrek begi-belarriak zorrozterazten dizkigu, efikazi eta profesionaltasun-gogo soilagatik ez balitz ere, erosotasunaren bila, errazago izaten baita bestek jadanik aurkituriko soluzioak onartzea, nork bere kontutik Mediterraneo aurkitzen saiatzea baino. Horrek, zer esanik ez, bulletin ofizialak, lexiko bereziak eta beste profesional batzuekin bilerak eta kontsultak egitera eramán gaitu, pixkanaka oinarrizko hiztegitxoak egiteko. *Ad usum privatum* bada ere, horrelako saioren bat ere egin izan da, unibertsitate mailako terminologia orokorrarekin eta fakultate, eskola sail eta asignaturen zerrendekin.

Ezin ahantz daiteke, gainera, itzuli beharreko testu guztiek ez du-tela, ez eta unibertsitatean ere, garrantzi eta maila berbera. Gauza bat da Errektoregoak antolatzen duen ospakizun publiko baterako deia, Nobel Saridun bat Honoris Causa doktore janztea, adibidez, eta beste bat, zeharo ezberdina, azterketa baten abisu soila. Eta hizkuntzaren zuzen-tasuna beti ere ongi zaindurik egon behar arren, bistan da bigarren kasu honetan erregistro-maila apalagoa erabil daitekeela inolako desohorerik gabe.

Bestalde, egindako itzulpen guztien kopiak gordetzeak maiz lana errazten digu, formula eginak (instantziak, agurrak, eskariak, izen-ema-

teko inprimakiak...) beti era berean egiteko aukeraz. Informatizazioa lortu genuenetik, bestalde, lan hori erabat erraztu da. Teknika, beraz, oraingo honetan euskararen fabore irten zaigula aitortu behar.

Prozedura-moduan, itzulpenak egiten ditugunean, kalitatea bermatzeko, ahozko eta telefonozko kontsultak ez dira normalean onartzen, euskaraz ongi alfabetaturiko pertsonak eginak direnean izan ezik. Erantzunak beti ere idatziz eskaintzen dira, eta aspaldion ordenagailu-diskeeteetan grabaturik. Horrek interpretazio txarrak eta kopiatze-okerrak saihesten ditu. Horrela baina, ez dira moldiztegetako azken orduko akatsak baztertzen, edo prentsako arduradun erdaldun arduragabeen arduragabekeria, zoritxarrez.

Unibertsitatea sartzeko hautaprobeen prestaketan ere, Selektibitatean alegia, Kabineteak ardura berezia erabili du azterketa ereduak bertan itzuli edo gure arloko gaiak ez zirenean, irakasle euskaldun berezitu bidez itzularazteko, horrela Unibertsitatera lehen aldiz hurbiltzen diren ikasleek proba normaldu eta zuzenak izan ditzaten.

Irakasle euskaldunen hizkuntz kontrola

Irakaskuntzan erabiltzen den euskararen kalitateari dagokionez, begien bistan dago hori Kabinetearen zeregin zuzena barik, horko irakasleentz esku dagoea, eta, beraz, ezinbestekoa dela alde aurrez horien hizkuntz kontrola egitea, gaitza aurretik begiratuko bada. Kontrol hau, plaza berriak izaten direnean egiten da, eta hor kandidatu guztiek, akademi curriculum egokiaz batera, bere arloko gaien klaseak euskaraz behar duen moduan, ahoz eta idatziz, emateko moduan daudela frogatu beharra daukate, lau irakaslez osaturiko epaimahai baten aurrean. Hau gainditu gabe, ezin daiteke inor kontrata. Kabineteak esku hartu izan du irakaskuntza euskaraz eman behar duen irakasle berrien euskara-maila erabakitzeke epaimahaietan, kandidatuen hizkuntz soslai egokia hasiera-hasieratik garantizatzen saiatuz.

Gure hizkuntza ofiziala izan baino lehenago ordea, baziren Unibertsitatean irakasle euskaldunak, baina horien maila ez zen oso hopmogeenoa. Hobakuntza-premia zuten irakasleentz euskara maila goratu eta eguneratzeko, gero eta gehiago sentitzen den beharrizana berau, igazdanik birziklatze-ikastaroak antolatzen hasi dira, eta ondorioak aski pozgarriak direla esan daitezke. Gipuzkoan adibidez, 100 irakasle inguru joan dira ikastaro horietara.

Administrazio eta ahozko euskaraz landa, aparteko garrantzia du, gainera, testu-liburuen zuzentasunak. Liburuak mintzaira guztietan lexi-

koa finkatzeko ezinbestekoak diren aurren, are munta handiagoa izaten dute batasuna lortzen ari denean, eta zer esanik ez, arlo hau ere ezin utz zezakeen Unibertsitateak jagon gaberik. Hortaz, Unibertsitatean testu edo kontsulta-lan gisa argitaratu beharreko liburu guztiek zuzentasun-kontrola gainditu behar izaten dute, Euskaltzaindiaren arauak, gramatika-erregelak eta terminologia egokia betetzen dituzten ala ez ikusteko. Euskal Gobernuak, gainera, hori barik ez ditu liburu horiek subentzionatzen.

Zuzentasuna eta praktikotasuna

Oro har, Kabinetetik egindako itzulpen eta aholkuak ongi errespetatzen direla esan daiteke. Halere, kasu batzuetan, praktikak hala gomendaturik eta erraztasunaren izenean, interesatuek esaldi batzuk aldatu egiten dituzte, gehienetan guri kontsulta eginda. Adibidez: Gipuzkoako “Oinarrizko Heziera Orokorrerako Irakaslearen Unibertsitate-Eskola” izen ofiziala luzeegia zenez gero, Ikastegi horretakoek “Irakasle-Eskola” moduan laburtu dute.

Kasu honetan, oso jokabide zuhur eta bidezkoa erabili badute ere, badira, ordea, beste kasu batzuk, ezjakintasunez edo informaziorik ezaz gertatuak. Hor daude, kasu, aspaldiko *doktorego*, *errektorego*, *ingeniari*, *ingeniaritza*, *ordezkaritza*, *irakasle-eskola* hitz ezagunen lekuan *doktoradutza*, *erretoradutza*, *injenieru/injenierutza*, *injenieritza*, *delegaritza*, *majisteritza -eskola* moduko hibrido ganorabakoak, gure ustez baztertu eta zuzendu beharrekoak.

Aipatu beharreko beste kasu bat irakasleok bere berezitasunean aspaldian erabiliriko terminologia eta grafiaren auzia da. Arlo honetan, oro har, jendea Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak zintzoki betetzen ahalegintzen den arren, zenbait kasutan, Unibertsitateko orain arteko euskal tradizioari eta nazioartekotasun-irizpideei atxekitzea nahiago dute (*likido*, *solido*, *exklusibo*, *azido*, *aldehydo*, *exponentzial*, *dextrogiro*, *expressionismo*, *projekzio*, *bijekzio*...), Euskaltzaindiak aurten, seguraski berrikusi beharko dituen puntu batzuetan. Hau guztiau, dena, den, lexiko oso berezituari doakionez gero, ez du aparteko problemarik sortzen.

Bai baina...

Itzulpen-zerbitzuak, beren urritasunean, zentralizaturik daudenez gero, oro har eta lapsusen bat salbu, unibertsitateak idazki ofizialen euskararen erabilera eta zuzentasuna nahiko ongi kontrolatzen dituela esan

daiteke, gure unibertsitatearen epe honetan, oraindik zenbatekoari nola-koari baino garrantzi handiagoa ematen zaion arren. Baina praktikan zenbait oztupo gertatzen dira, beti bezala giza faktorearen lepora egoztekoak, eta hortik inolako kontrolik gabeko idazki erdiofizialak ere badira.

Unibertsitate barruan euskara idatziaren arloko akatsez konturatu bezain agudo, inork salatzen baditu, horiek zuzentzeko pausoak egiten dira, arduradunekin mintzatuz. Dena den, gogoan izan Unibertsitateak ez duela kartel eginak kontrolatzeko polizi zerbitzu berezirik, eta horiek zuzentzeko prozedura ere ez dagoela arauturik. Horregatik, maiz, zuzenketa egitea, azken buruan interesatuen gogo on edo txarraren pean gelditzen da. Hauxe da, ene ustez kalitatea zaintzeko oztoporik larrietako bat. Arduragabekeria horren aurkako polizia-rik edo zigorrik eza, alegia.

Giza faktoreari buruzko gogoeta batzuk

Pertsonak oro eta administrazio arlokoak batik-bat, inertzia handiz mugitzen gara, eta ez da hain erraza ohiturak aldatzea. Are gutxiago ohitura horiek aspaldikoak, gure kasuan mendeetakoak direnean. Eta Espainiako elebakartasun luzeak bere ondorio txarrak sendoki xartaturik utzi ditu gure artean.

Honez gero elebitasun-egoeran hamalau-urtetan bizi izan garen arren, anitz unibertsitarik ez dute oraindik egoera berri hau berenganatu. Irakasle, kargudun eta administrari askoren ustez, inkontzientzeki bada ere, elebitasuna “besteen” kontua da, eta hori betetzeko eskatzen zaie-nean, kasurik onenean, protestatu gabe konplitzen saiatzen dira, baina ezinbesteko gaztigua balitz bezala, eta oraindik askori ez zaie “barrutik” irteten, ez dute automatismoz egiten, eta euskaldungoarekiko mesprezio agian inkontzientze osoaz, erdal testu, abisu eta kartel elebakarrak ateratzen segitzen dute... unibertsitatearen eta, maiz, diputazio eta udalen izenekin batera! Kasu batzuetan, noski, arduragabetasuna izan daiteke, baina beste batzuetan probokazio hutstzat jo daiteke, beren idazpuruak gaztelania-ingelesz dituzten zenbait sailetan gertatzen denez, Euskal Herriko Unibertsitatean legez kontra euskara bazter utzirik!

Abstraktuan mintzatzek inoiz problemaren egiazko neurriak ikusten uzten ez digunez gero, amaitzeko, adibide praktiko batzuk jarriko ditut, jokabide tamalgarri horiek zertan funtsatzen diren erakusteko, hizkuntza zuzenaren aurkako okerrak ez baitira “berez” egiten, norbaitek edo norbaitzuek eginak izaten dira eta.

Unamunoren ustez unibertsitateak jakituriaren tenplu izan beharko luke. Ikuspegi horretatik, eta unibertsitatez ari garenez gero, askori lotsagarri bezain ulertezina iruditzen zaigun arren, kontuan hartu behar da, gure unibertsitatean —gure gizarte zabalean bezala— badirela euskaraz absolutuki ez dakiten pertsonak, antza denez sekulan santan ikasteko asmorik gabeak gainera. Hots, euskara, sanskrito, swahili edo ainu artean bereiziko ez luketenak. Eta beren ezjakintasun eta arduragabezia horrekin hainbat problema praktikoko sorterazten dizkigute.

Pertsona horiek, adibidez, euskaraz maskulino/femenino bereizkuntzarik ez dela, edo, gure hizkuntzak, munduko beste askoren antzera, erlatiboak esaldi luzeak egiteko erraztasunik ez duela ez dakitenez gero, izugarritzko lana eta buruko minak ematen dizkigute itzultzaileoi beren erdal esaldi kilometrikoekin. Espainolez idazten dutena euskaraz ere argitaratu behar dela kontutan hartu eta pentsatuko balute, gauzak errazteko ahalegin pittin bat egin lezaketete.

Inoiz ez da kontuan hartzen itzulpen-lanak bere denbora behar duela. Espainolez txosten bat egiteko nahi adina denbora eta patxada hartu eta gero, itzultzaileongana, aldiz, azken orduan eta alegeraki hainbat orrialdetako lanekin etortzen dira hori “biharamunerako” behar dela esanez. Argi eta garbi salatu behar da euskarari eta euskaldunoi irain egitea dela, lan ofizialak prestatzen hastean itzulpenenerako ere behar den denbora alde aurretik, automatismoz, ez programatzea eta itzultzaileekin harremanetan ez jartzea; moldiztegiekin eskuarki izaten den ardura, derradan bidenabar.

Unibertsitatearen barruko saltoki batzuk —kafetegiak, jantokiak, liburudendak, papertegiak— teoriarik bederen, unibertsitateko partaide guztien zerbitzurako daude, baina horien urteroko kontratazioa egitean, hori Euskararako Errektorordetzaren ardurapean ez dagoenez gero, ez dira behin ere baldintzen artean jarri horko pertsonala, neurri batez behintzat, elebidun izatea, ez eta kartelak, iragarkiak eta prezioak elebidun jarri beharra ere. Eta horrek *de facto* galarazi egiten die unibertsitari euskaldunei beren eguneroko unibertsitate-bizitza osoa euskaraz egiten, erdaldunekiko bereizkeria nabariaz.

Unibertsitatearen diruaz subentzionatzen edo eta osorik ordaintzen diren aldizkari orokorretan, berriz, ez zaie argitaratzaileei eskatzen hor gure hizkuntza ofizialek berdintasun-egoeran beren tokia garantizaturik izatea, eta maiz diru publikoaz erdara hutsezko agerkariak ateratzen dira, izenburuarekin berarekin hasita, berdin-berdin Valladolideko Unibertsitatean argitara litezkeenak.

Kezkagarria da, halaber, argitarapen zerbitzuetako arduradunen artean unibertsitateko hizkuntza ofizial biak jakin beharra ez eskatzea. Horrek hainbat aldiz agerturiko okerrak ekidin litzake.

Kartel edo inprimakietan moldiztegiko oker bat agertzen denean, okerra espainolez egonez gero, horrek berehala zuzendu beharra sortarazten du, baina euskaraz daudenean, urteak pasa daitezke, behin eta berriro salatua izan arren, hori konpondu arte. Euskaraz ez dakitenek ez baitiote “horri” garrantzirik ematen, euskararen “egiazko” ofizialtasuna oraindik ez dutela barneraturik erakutsiz. Honexek salatzen digu, besteak beste, gure gizartean oraindik zer nolako elebitasun-kontzientzia urria dagoen.

Giro hau publikoki salatzen eta aldaratzea lortzen ez dugun artean, legerik onenaz ere, bidea oztopoz beterik izaten segituko dugu.